

2. MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak batez ere pertsona gazteak izango dira. Oraindik ikasten ari dira, edo duela gutxi ikasketak bukatuta. Horregatik, esperientziarik gabekoak edo oso gutxikoak dira, eta dirua behar dutenak. Gainera, batzuk adin txikikoak izango dira.

Bezero segmentazioaren arabera, merkatu masiboa izango litzateke. Gure bezero nagusiak lanean esperientzia gutxiko edo gabeko eta dirua behar duten gazteak izango dira. Beraz, antzeko beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da.

